EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

"TASA TURISTIKOA"REN INGURUKO, KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, "Tasa Turistikoa"ren ingurukoa, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Ogasun Batzordean 2019ko apirilaren 8ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

"Tasa turistikoa"ri buruz urteak daramagu hitz egiten. Dirudienez zerga berri hau EAEko Lege Biltzarrak onartu eta Batzar Nagusiek arautu beharko lukete (OHZen errekargua bezala); ondoren, nahi duten Udalek, beraiek definitzen dituzten baldintzak kontuan hartuta, aplika dezaten. Debatea gehien bat Gipuzkoan sustatu da, baina benetan abian jartzeko ez da apusturik egin.
Bitartean Donostiako Udalak urtero gutxienez 3.000.000 euro jasotzeari utzi egin dio. Gure Udalaren diru-sarrerez hitz egiten ari garenez, alkatearen lehentasun bat izan beharko lukeela pentsatzen dugu; baina argi dago ez dela horrela.
Ogasun delegatuak oraindik horrelako zerga bat jartzeko ahalmena zeinena den, ez dela argitu adierazi zuen. Dirudienez Jaurlaritzak pausuren bat eman du eta zirriborro bat aurkeztu omen du. Gauzak horrela, urteak joan eta urteak etorri, Donostiako Udala diru-sarrera garrantzitsu bat galtzen ari da.
Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

IERK/
CIF
P2007
500X/
TEDR
FE
0120
6895
1065
5
2011-
06

KONTROL MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, lan egin dezala "tasa turistikoa" udal zerga bat izan dadin, nahi duten udalek ezarri dezaketena, eta bildutakoa Udal horren diru-sarrera izango dena.

Donostian, 2019ko apirilaren 11an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia